



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia.
"Euskaldun Berria Aretoa" ekitaldi-aretoa. Donostia kalea, 1.

2016ko azaroaren 16a.

Testuingurua eta jardunaldiaren helburuak

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak botere-desberdintasuna du funtsean, eta boterea baliatzea estuki loturik dago gizonak gizartean bete behar duten rolaekin, hots, haiengandik espero den rolaekin. Horregatik, beharrezkoa da rol hori betetzearen oinarrian dauden agindu eta espektatiba sozialei aurre egitea.

Berdintasuna lortzen aurrera egiten jarraitzeko, jardunaldi horretan aztertu nahi zen benetan zer botere-harreman gertatzen diren bizitzaren eremu batzuetan, nolako bilakaera duten eta norantz doazen, betiere, ahaztu gabe zer gizon eredu den nagusi gure gizartean: maskulinitate hegemonikoa.

Hau izan zen jardunaldi horien helburua: euskal gizartearen zenbait eremutako pertsonak biltzea (gizonak batik bat), emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna helburu duten estrategiak aztertu, eztabaidatu eta proposatzeko; horretarako, gizonak boterea baliatzearekin zer harreman duten eta maskulinitatea egun nola eraikitzen den mahaigaineratu zen.

Jardunaldian hausnarketa egin zen ikusteko politika publikoak ezartzerakoan zer helburuk eta estrategiak lagun dezaketen genero-privilegioak ezaba daitezen eta emakumeek eta gizonak aukera berberak izan ditzaten erabakieremu politiko, sozial eta ekonomikoetan sartzeko.

Jardunaldiaren aurkezleak Izaskun Landaida Larizgoitia eta Josu Erkoreka Gervasio izan ziren, hurrenez hurren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria eta Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburua.

Gary Barker izan zen esparru-txostenaren arduraduna, gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko gizonekin egin beharreko lanean aditua bera. [Promundo](#) erakundearen fundatzaile eta nazioarteko zuzendaria da, eta kofundatzaile da mundu mailako [MenCare](#) kanpaina, zeinak helburu baitu gizonak zaintzalanetan parte har dezaten bultzatzea, bestelako mundu bat lortzeko: berdinzaleagoa eta indarkeria gutxiagokoa.

Talde-lana eremu bakoitzean aditu direnek koordinatu zuten: eztabaidak gidatzeaz arduratu ziren, dinamika espezifikoen bidez, taldean proposamenak eta iritzirik pizteko. Guztira, hiru lantalde sortu ziren:

- a) **Ekonomia:** Koordinatzaile, Tomás Arrieta; Lan Harremanen Kontseiluko lehendakaria. Besteak beste, enpresa eta lan munduko genero-estereotipoak aztertu ziren, lan-harremanetan nola eragiten duten, zer


ondorio dakartzaten, zer erresistentzia dauden eta nola ezar daitezkeen beste kudeaketa- eta lidergo-eredu batzuk.

- b) Politika:** Koordinatzaile, Ibon Uribe; Galdakaoko alkate, EUDELeke Zuzendaritzako ordezkari eta CMRE Berdintasun Batzordeko presidentea. Gai hauei heldu zitzaion: nagusi den maskulinitateari lotutako estereotipoek zer nolako eragina duten politikan; boterea baliatzeko egiturak eta formak nola, non eta zergatik aldatzen ari diren; zein eremutan jarraitzen duten eskema tradizionalak; eta norantz joan nahi dugun politikan berdintasunaren aldeko eraldaketa bat lortzeko, besteak beste.
- c) Kultura:** Koordinatzaile, Patxi Perez; aktorea. Aztertu ziren gaiak: ezagutzaren ekoizpena, horretarako bideak eta dibulgatzeko moduak zenbateraino diren ikuspegi androzentrikoak markatutako botere-gune; maskulinitate tradizionalaren eraikuntzak zer rol duen fenomeno hori betikotzeko; eta aldaketak non gertatzen ari diren, eta zergatik, besteak beste.

Asistentzia, jatorri-erakunde motaren arabera

Jatorri-erakunde mota	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Udal- eta foru-erakundeak, Eusko Jaurlaritza	32	17	49
Enpresa	3	7	10
Hezkuntza	4	5	9
Elkarteak	1	3	4
Ez dute erantzun	2	1	3
Guztira	42	33	75


Instituzioen atalean, Eusko Jaurlaritzako sailtako 35 lagun izan zirela nabarmendu behar da.



Jasotako balorazioak


Erantzunak, sexuka

Erantzunak	Erantzunak sexuka
Emakumeak	18
Gizonak	18
Ez dute erantzun	2
Guztira	38




Lehen aldia, berdintasunari buruzko jardunaldi batean.

Erantzunak	Lehen aldia berdintasunari buruzko jardunaldi batean
EZ	24
BAI	12
Ez dute erantzun	2
Guztira	38




Gomendatuko zenieke jardunaldia beste batzuei?


Erantzunak	Gomendatuko zenieke jardunaldia beste batzuei?
BAI	36
Ez dute erantzun	2
Guztira	38



Batezbesteko balorazioak (1etik 10erako puntuatzeak)



Batezbesteko balorazioak sexuka (1etik 10erako puntuatzeak)



Alde positiboak

- Gaiari buruzko ideia eta kontzeptu berriak entzutea.
- Jendearen jarrera positiboa.
- Itxaropentsu ateratzea.
- Gaiak.
- Hizlaria.
- Proposamenak.
- Jaso ditudan ikuspegi desberdinak.
- Taldeko lagunen jakintza.
- Zuzentasuna eta errespetua.
- Beste errealitate batzuk ezagutzea.
- Jendearen partaidetza.
- Hitz egiteko eta besteei entzuteko aukera.
- Denbora aldetik, formatu egokia.
- Geroago txostena lotzeko.
- Lan-taldeak.
- Jardunaldira etorri den jendearen aniztasuna, -arlo desberdinak.
- Lekua.
- Tailerraren dinamika: ideiak, pentsamenduak partekatzeko.
- Talde lana sustatzea.
- Parte hartu dugunoi galdetzea eta denon artean.
- Aldaketa lortzen saiatzea.
- Instituzionala izatea.
- Hizlaria.
- Dinamizatzaileen lana.
- Hezur-mamizko politikariek dinamizatzea.
- Munduko ikuspegia ematea.
- Hainbat pertsonaren hausnarketa.
- Ikuspuntua, gutxiago erakusten baita administrazioetan.
- Prestakuntza (prestakuntza pilula).
- Aberasgarria norberarentzat.
- Kontzientzia hartzea.
- Lantegia.
- Jardunaldian zeuden emakumeen jarrera.
- Jardunaldiaren formatua.
- Gaia.
- Eztabaidaren formatua oso gustukoa izan dut.
- Gaia tratatzea.
- Beste eremu batzuetako pertsonekin eztabaidatzeko eta trukatzeko aukera.

- Hitzez jarri, partekatzen ditugun ideiak.
- Aldaketaren beharraz hausnartzea.
- Txostengilea didaktikoa izan da, eta transmititzen jakin du.
- Esperantza dago, norberaren eta besteen zaintza da gakoetariko bat, jarduera negatiboen desadostasuna erakutsi behar da, eta positiboak indartu eta txalotu.
- Berdintasunaren alde dabilzanen ahots desberdinak entzutea.
- Txostengilea eta taldearen moderatzaileak argiak eta hurbilak izan dira.
- Talde-lanak aukera ematen du norberaren ideiak kontrastatzeko eta jardunaldira joan diren pertsona batzuk ezagutzeko.
- Zaintzaren etikaren garrantzia.
- Gizarte-ongizatearen eredu ekonomikoa.
- Berdintasunerako praktiketarako dotazio ekonomikoa.
- Txostengilearen ikuspuntua ikustea (Gari)
- Hausnartzeko aukera.
- Aktiboki entzutea.
- Ideia-jasa.
- Gaiari buruzko kontzeptuak, ideiak eta lanak ematea.

Proposamenak

- Lantaldean denbora gehiago eman.
- Eusko Jauriaritzako zuzendariekin eta sailburuordeekin egitea
- Nik neuk nahikoa lan daukat hobetzeko.
- Jarduteko proposamen interesgarri batzuk aipatu ditugu.
- Talde-lana inguru goxoago batean egitea, mahairik gabe eta zirkuluan, pertsona guztien aurpegiak ikusteko.
- Nahikoa eta interesgarria iruditzen zait.
- Denbora gehiago.

Oharrak

- Politikak lagungarri dira.
- Jardunaldi gehiago, konprometituta dauden pertsonekin edo txostengileekin, hemengoak bezalako esperientzien berri emango dutenak.

Ideiak eta proposamenak, hitzez hitzezkoak, lan-taldeetan eta balorazioetan jasoak.

POLITIKA	EKONOMIA	KULTURA
Politikak kaleko errealitatea urrun uzten duela iruditzen zait		
Emakumeek konfiantza behar dute		
Gizonak berdintasunerantz ahalduntzea.		
Eredu desberdinak ikusarazi.	Ordaindu gabeko lanak, etxeko lanak eta zaintza-lanak erabat desberdin banatuta daude oraindik ere. Kontziliazioa baliagarri izan da emakumeek etxetik kanpo lan egiteko, baina huts egiten ari da erantzukidetasuna areagotzeari dagokionez.	Kulturak zehazten du bai nola egiten diren gauzak, bai zergatik uste dugun horrela egin behar dugula. "Kulturak dena definitzen du".
Aurrera egin da emakumeen ordezkariak dagokionez: alderdi politikoetan, erabaki politikoak hartzeko egitura batzuetan, ordezkariak orekatuago dago; adibidez, Eusko Legebiltzarrean, non 41 emakume hautetsi dauden.	Emakumea lan ordainduan hastearen garrantzia, batez ere azken hiru hamarkadetan.	Ezin gara egon kultura-sozializazioarako hedabideetan, interneten, telebistan... horietatik kanpo bageunde bezala, inplikatu gabeko eragileak bagina bezala. Gure ekarpena egin dezakegu.
Botere politikoaren egitura askotan, emakumeak ez daude behar beste ordezkariak. Ehuneko 25 baino ez dira alkate, horietako bat ere ez hiriburuetan, eta, askotan, tradizioz emakumeekin lotu izan diren zinegotzigoetan daude.	Oraindik ere, desberdintasun sakonak daude eta sortzen dira emakumeen eta gizonen artean, lan ordainduaren merkatuan. Desberdintasun txikiak jarduera eta enplegu tasetan, populazioaren segmentu altuetan salbu.	Galdetu beharra daukagu: Zerbait eman dezaket? Kulturara sarbidea izateak genero-desberdintasunak gainditzeko lagun dezake? Zer eredu ikusten ditugu maskulinitatearen eremuetan?

POLITIKA	EKONOMIA	KULTURA
<p>Badago irudikeria bat berdintasunaren inguruan: adibidez, berdintasun indizea. Berdintasunerako Europako Institutuaren (Eurostat) eta Emakunderen arabera (Eustat), genero-berdintasunaren batez besteko indizea hau da Europan: % 52,9; Euskadi 5. postuan dago (% 58,5), eta lehen postuan, Suedia (%74,2). Datu horiek berdintasunaren sentipen faltsu bat ematen dute.</p>	<p>Oraindik ere segregazio horizontalak eta bertikalak daude (kristalezko sabaia: emakumeen presentzia, enpresa handietako ardura-postuetan); soldata-arrailak ere hor jarraitzen du; karrera profesionalean ere desberdintasunak dituzte oraindik ere, eta gora egiteko aukera gutxiago daukate.</p>	<p>Bultzatzen diren ereduak ere baldintzatuta daude: ekonomiak eta gizartean diruak duen garrantziak baldintzatuta.</p>
<p>Lidergo maskulino eta femeninoaren ereduak androzentrismoan oinarrituta daude.</p>	<p>Pentsioetan arraila handiak daude, soldatetan baino handiagoak.</p>	<p>Edertasunari buruz daukagun kontzeptua eraikuntza sozial bat da.</p>
<p>Sakonago aztertu behar dugu gizonok lidergoa nola baliatzen dugun eta zer desberdintasun dauden emakumeek baliatzen duten lidergoarekin.</p>	<p>Rol sozialak generoaren arabera banatzea eta nagusi den maskulinitate-eredua traba handia dira erantzukidetasunean aurrera egiteko. Kontziliazio-neurriak zabaltzea, genero-rolak bereizteak dakartzan mugarik gabe; horra hor erronka.</p>	<p>Gaitasun kritikoa izatea bultzatu behar da.</p>
<p>Emakumeek boterea baliatzean duten rola aintzatetsi behar dugu.</p>	<p>Enpresa-kudeaketako eta lidergo eredu klasikoek "indartu" egiten dituzte genero maskulinoari tradizioz izendatutako balioak: independentzia, asertibitatea, (erabakiak), arriskuak hartzea, aginterako gaitasuna, zereginerako orientazio eskusibo edo lehentasunezko baten testuinguruan.</p>	<p>Inklusioaren kontzeptua landu behar da. Erasotzailea estigmatizatuz edo isolatuz.</p>
<p>Agenda politikoak, askotan, bigarren planoan jartzen ditu emakumeak; ez die daukaten balioa aitortzen eta ikusezin bihurtzen ditu.</p>	<p>Estereotipoen arabera gizonenak diren balio horiek ordeztu edo osatu egin behar dira, gizartean tradizioz emakumeekin lotu izan diren beste batzuekin; horra hor erronka.</p>	<p>Emozioan oinarrituta planteatu behar da arazoa.</p>

POLITIKA	EKONOMIA	KULTURA
<p>Oraindik ere banatu egiten da bizitza publikoa, bizitza pribatua eta bizitza soziala.</p>	<p>Legezko neurriekin batera, eragile sozialek ere parte hartu behar dute eta konpromisoa hartu behar dute, enpresetako berdintasun-planak behar bezala garatzeko: 3/2007 Legeak sartutako berdintasun-neurriak eta -planak.</p>	<p>Beste ekosistema desberdin bat sortu behar da, non inplikazio pertsonalak lekua izango duen; elkarreragiteko guneak sortu behar dira; hizkera aldatu behar da.</p>
<p>Praktika politikoan, beharrezkoa da erakustea zaintza-lanak eta etxeko lanak zeinen garrantzitsuak diren bizitzaren sostengurako eta pertsonen ongizaterako. Garrantzitsua da gure jokabideen alderdiak eta ideiak identifikatzea, berdintasunaren arloan zer aurrerabide eta zer atzerakada egin dugun azaltzeko.</p>	<p>Emakumeei etxean lan egindako urteak zenbatzea edo/eta gizonei (lanaldia mozten dutenean edo orduak gutxitzen dituztenean). Laguntza sozialetik lan sozialera: laguntza soziala gaixotasunagatik lan-munduan sartu ezin direnentzat utzi. Laguntzak kobratzen dituzten pertsonen artean, desberdintasun handiak daude, eta lan sozialera aldatzea lagungarri izan daiteke desegituratuta dauden familien artean berdintasunaren kontzientzia hartzeko; talde horietan argi ikusten dira desberdintasunak.</p>	<p>Jarrera aktiboa izatea eta adierazpen matxisten eta sexisten aurrean ez isiltzea bultzatu behar da. Emakumeak gehiago dedikatzen dira kultura-kudeaketara, sormenera baino.</p>
<p>Azpimarratu egin behar da ordutegiak zeinen garrantzitsuak diren praktika politikoan, emakumeek eta gizonek botere-gune informalak nola okupatzen dituzten ulertzeko.</p>	<p>Enpresa pribatuetan ordutegiak aldatzea.</p>	<p>Hizkerak duen garrantzia, ereduak sortzerakoan. Azkenean, hizkera kultural batekin eraikitako ereduak jarraitzen zaie.</p>
<p>Nabarmendu beharra dago zer desberdintasun dagoen emakumeen eta gizonen artean politikan gora egiterakoan, eta seme-alabak izatean bakoitzak nola uko egiten dien zuzendaritza-postuei, zaintza-lanak egin ahal izateko.</p>	<p>Beharrezkoa da “metal”aren hitzarmena “zaintzen” hitzarmenarekin alderatzea, zer desberdintasun dagoen ikusteko.</p>	<p>Botere publikoak benetan inplikatu behar dira kulturaren (lehentasunen artean jarri). Heziketa etxean eta eskolan. Guneak sortu, partekatze eta eztabaidatzeko.</p>

POLITIKA	EKONOMIA	KULTURA
<p>Lan egin behar da emakumeak ahalduntzeko, Virginia Woolf Basqueskola eskolaren bitartez (euskal emakume hautetsiak ahalduntzeko eskola).</p>	<p>Joerak aztertu lanpostuen balorazioetan.</p>	<p>Berdintasuna guztiontzat. Lanbideetarako sarbidean eta azterlanetan.</p>
<p>Proposamena: sareko lan bat ezartzea gizonetako hautetsiekin, sareak eta estrategiak eratzeko ("zurrumurruek aurka" gisakoak), udal-eremuan sinesmen eta zurrumurruxi sexistei aurre egiteko mekanismoak lortzeko.</p>	<p>Hori nola ekarri erakundeetara?</p>	<p>Kultura desberdinekin lan egin beharra dago.</p>
<p>Norberaren lan indibidualak alda ditzake mikrokosmoak; egoerari buelta eman behar zaio, berdintasun benetako eta eraginkorrerako bideari heltzeko.</p>	<p>Neurriak hartu behar dira gizonetako zaintza-lanen ardura har dezaten.</p>	<p>Moral bikoitza hautsi behar da, eta borroka egin behar da estereotipoen aurka. Utopia.</p>
<p>Gizonentzako lantegiak: emakumeentzako egiten diren berdinak.</p>	<p>Ugalketa-lana, bizitarako beharrezkoa izaki, diskurtsoaren erdigunean jarri behar da, eta baloratu egin behar da, ekonomikoki zein sozialki, bai eta gizonetako erantzukizunera erakartzeko tresna gisa ere. Erdigunean egon behar du diskurtso politikoan eta azterlanetan, bai eta politika ekonomikoetan ere.</p>	<p>Emakumeen eta gizonen rola lantzeko komunikabideek duten garrantzia azpimarratu behar da.</p>
<p>Beharrezkoa da gizonetako ekarpen handiagoa egitea.</p>	<p>Garrantzitsua litzateke zaintza-sarea (legez, hitzarmen bidez) zabaltzea, familia-kidetasun eta odolkidetasunaz harago. Pertsona bakoitzak dituen "mendekoak" izenda ditzala, ahaidetasunetik egon beharrik gabe.</p>	<p>Halaber da garrantzitsua berdintasunaren gaia ikastetxeetan lantzea.</p>

POLITIKA	EKONOMIA	KULTURA
Beharrezkoa da ekosistema bat sortzea, desberdintasuna behar bezala erakusteko eta horren kontra egiteko.	Aitatasun-baimen berdinzalea, besterenezina eta ordaindua. Oraintxe!	Balio berriak ekarri behar dira, eta gure gizartean daudenak zalantzan jarri: Zer sexualitate-mota eraikitzen dugun, pornografia eta zer ondorio dituen. Herrietan, eskoletan ... guneak sortzea, gai horiek eztabaidatzeko eta bakoitza eredu desberdina dela.
Berdintasunerako "desioa" sortzen eragitea.	Hitzarmenak kategoria profesionalen arabera konparatzea, gehienak emakume edo gizonak dituen hitzarmena den kontuan hartuta; esate baterako, ordainketa eta eskala, garbiketlanpostuan, zenbait hitzarmenetan.	Beharrezkoa da ikastetxeetan adinekoak edo umeak zaintzeari buruzko praktikak egitea (Hezkidetzako proiektua).
Gizonen zaintza-ereduak ezagutzera ematea eta erakustea, beste gizon batzuk ere zaintza-lanetan has daitezkeen bultzatzeko.	Erantzukidetasuna: denbora da. Denbora gutxiago dago emakumeentzat.	Emakumeok ez gara atera; gizonak, aldiz, ez dira sartu.
Administrazioak aitzindari izan behar du gai honetan.	Gutxitu egin behar da soldata-arrakala.	Hezkuntzaren eremuan, semea dudan aldetik, ekimen gehiago egotea nahi nuke (ekintzak, programak ...). Batzuetan kezkatu egiten naiz umeak (16 urte) dituen balioengatik: ez errespetuari dagokionez, aurrera egin dugula uste baitut, baizik eta genero bakoitzerako baliatu beharreko rolengatik (lana vs. zaintza-lanak).

POLITIKA	EKONOMIA	KULTURA
Garrantzitsua da legeak aztertzea eta berdintasunerako egokitzea.	Jardunaldi gehiago egin, antzeko profilekin. DSBE jasotzen dutenak adinekoen eta mendekoen zaintzan sartzea, prestakuntza emanez eta profesionalei laguntza emanez; laguntza ematea, eta esperientziak azaltzea, norberarenak eta adinekoenak. Elkarrekin aberastea. Gizonak eta emakumeak.	
Eusko Jaurlaritzaren edo Estatuaren diruarekin lehentasunak ezartzea, berdintasunaren alde.	Ados: aitaltasun-baimen osoa bultzatu eta indartu behar da aitentzat.	Lantegiak oso baliagarriak dira, baina ez dago Hezkuntzari buruzkorik, eta egon behar litzateke. Arazoaren oinarria hezkuntza da, eta hortik aterako dira emakumezko politikari, ekonomialari eta artistak.
Botere publikoen boterea erabili, hobetzeko.	Beharrezkoa dira dotazio ekonomikoak berdintasunerako legeetan.	Azpimarratu egin behar da zer nolako garrantzia duen hizkerak ereduak finkatzerakoan. Azkenean, hizkera kultural batekin eraikitako ereduari jarraitzen zaie.
Nire ustez, "agenteen" talde bat osatu behar litzateke, berdintasunaren inguruan Administrazioa dinamizatzeko eta han jarduteko. (Feminismoa eta maskulinitatea).	Beharrezkoa da eredu ekonomikoa aldatzea, gizarte ongizatean oinarrituta egon dadin.	"Iristen diren mezuak" askotan kritikatzeko ditugu.
Egoera hori soilik konpon daiteke beste kontratu sexual bat eginda sisteman	Beharrezkoa da enplegura lotuta ez dauden sistemak ezartzea, hots, gizadiari lotutako sistemak ezartzea. Adibidez: herritarren errenta.	Lanordu hobeak eta murriztuagoak behar ditugu.

POLITIKA	EKONOMIA	KULTURA
Aurrekontu ekonomikoa duten legeak izatea, eta horretan sinestea.	Zeharkako diskriminazio-kasuak antzemateko mekanismoak hobetzeko, genero-eraginaren txostenek duten garrantzia azpimarratu behar da, eta horiekin batera, neurri eraginkorrak hartu behar dira eta egiturak aldatu.	Gure gizartearentzat zein gizarte mota bilatu.
Genero-eraginaren azterlanak egitea egiten diren jarduera/ekintza guztietan (legeak, ...).	Gizonek aktiboki aldarrika dezatela aitatasun-baimenerako duten eskubidea (emakumeek beren eskubideak aldarrikatu dituzten bezala).	
Gizonen parte-hartze eta inplikaziorik gabe, berdintasunaren aldeko aurrerabideak hor geldituko dira: geratuta. Beharrezkoa da gizonak zaintza-lanetan inplikatzeari. Zer politika ezarri behar dira?	Liberazio mugimendua taldetik bertatik irten behar da	
Ekintza zehatzagoetan sakondu nahi nuke, helburu gizonak dituztenak.	Gizonek aldaketaren parte izan behar dute	
Zaintzaren etikaren garrantzia azpimarratu.	Eredu berdinzaleak publikoki babestu	
Zenbait proposamen: politika arloko ordutegiak egokitu; gizon politikarientzako eskolak sortu, berdintasunaren alde eraldatzeko eta kontzientziatzeko; gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko baliabide ekonomiko gehiago; lanaldi murriztuak dituzten alkateak sustatu, erantzukidetasun eredu bezala; jaiotzagatik eta adopzioz baimen berdinak eta transferiezinak ezarri...	Jarraitzea horrelako jardunaldien bitartez gaia jorratzen.	

POLITIKA	EKONOMIA	KULTURA
<p>80 lagun etorri ziren — gizonak baino emakume gehiago (% 65)—. Ezin da onartu. Prozedurak aldatu behar dira, bai sustapenean, bai onarpenean. Adin-tartea: gutxi gorabehera, egon diren artean % 5 baino ez dira 30 urtetik beherakoak, eta ni naiz gazteena (22 urte). Non dago helburu den publikoa? Nire ustez, 2007 urteaz geroztiko ekimen aktibo batek ezin du utzi, honelako ekitaldi batek “bertaratuen” profil hori izatea. Ekin lanari! Horri beste arazo hau gehitu behar zaio: “psikologoaren sindromea”. Etortzen direnek jada badute “maskulinitate berriei” buruzko prestakuntza; benetan kontzientzia hartzearen beharra dutenak, ordea, ez dira etorri. Badakit hori guztia agerikoa dela, baina, zalantzarik gabe, horrek ere lehentasuna izan behar du Gizonduzen ekintza-planean.</p>		